

MARKINA-XEMEIN / Peru Abarka narrazio lehiaketa martxan da

Lanak azaroaren 5etik abenduaren 28ra bitartean aurkeztu beharko dira.

Markina-Xemein.

Peru Abarka Narrazio Laburren lehiaketaren hirugarren edizioa abian jarri dute Udalaren Euskara Zerbitzuak eta Herri Bibliotekak. Album formatuko euskarazko lanak bultzatzea helburu duen lehiaketa honetan parte hartzeko lanak azaroaren 5etik abenduaren 28ra bitartean aurkeztu beharko dira. Iaz bezala, aurten ere lehiatzaileak bi mailatan arituko dira, haur literatura eta helduen literatura. Bakoitzean irabazle bana egongo da eta mila eta berrehuna euroko saria jasotzeaz gain, lana ilustraturik argitaratuko du Gero Euskal Liburuak argitaletxeak.

Lanak ez dira ilustrazioekin aurkeztuko, hauek argitaletxeak jarriko baititu irabazleenak argitara-tzerakoan. Epaimahaia urtarrilean batuko da eta apirilaren amaierarako egongo dira kalean. >I.A.